



HONDARRIBIko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016

Emaitzen txostena

Andoainen, 2017ko urtarrila



1.	Sarrera	2
2.	Metodologia	4
2.1	Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia	4
2.2	“Hondarribia, 2016” neurketaren fitxa teknikoa	9
2.3	Laginaren osaera	17
3.	Erabilera Hondarribian, 2016. urtean: emaitza orokorra	21
3.1	Hondarribiko elkarrizketetatik ia laurdena euskaraz	21
3.2	Testu-inguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila	22
3.3	Euskararen erabilera Hondarribian, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera isotropikoa aintzat hartuta	25
4.	Ezagutzaren bilakaera	27
4.1	Ezagutzaren bilakaera	27
4.2	Adinaren araberako euskararen ezagutzaren bilakaera	28
5.	Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko beste herriekin alderaketa	30
5.1	Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko herrien kale-erabileraren datuekiko alderaketa	30
5.2	Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera EAEko, Gipuzkoako, Bidasoa Beherako eta Hondarribiko datuen alderaketa	31
5.3	Inguruko hainbat herririkiko alderaketa	32
6.	Zonaldekako emaitzak	34
6.1	Zonaldeen araberako bilakaera	34
7.	Hiztunen ezaugarrien araberako datuak	36
7.1	Sexuaren araberako emaitzak	36
7.2	Adinaren araberako emaitzak	37
8.	Euskararen erabilera eta haurren presentzia	40
8.1	Haurren presentziaren araberako euskararen erabilera	40
9.	Datu nagusien laburpena	43



1. Sarrera

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen da iritzia ematera. Baina subjektibotasuna saihesteko, gero eta garrantzitsuagoa da egoeraren berri emango duten datuak eskuartean izatea, balorazioetan objektibotasuna lortzeko. Hala, datu horien bila ekin nahian, herriko euskararen presentzia nolakoa den adierazteko, funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika-arloko eskarmentuak erakutsi du erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuena eta fidagarriena.

Hizkuntza erabiltzea gizakion jardun arrunt ohikoa da. Nonahi, noiznahi, baliatzen dugu hizkuntza. Giza izaeraren bereizgarria da. Baina, testuinguru eleaniztunetan, euskararen kasuan bezala, hizkuntza bat edo bestea erabiltzea ez da jarduera arautua edota patroï jakinei obeditzen diena. Horrenbestez, hizkuntzen erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, eta metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz sortu eta garatu dugu kaleko hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Kale-erabileraren neurketaren metodologia horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitatera hurbiltzeko, eta, beraz, funtsezkoa bihurtzen da herri-mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Batetik, lehen aipatu moduan, objektibotasuna lortzen da herriko errealitate soziolinguistikoaz aritzeko garaian. Gainera, herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko beste hainbat datu badaude ere (eroldako ezagutza-datuak, ikastetxe eta euskaltegietako matrikulazio-datuak...), datu horiek guztiak herriko kaleetan entzun daitekeen eguneroko jardunean nabarmentzen dira. Bestalde, ohikoa izaten da baliabide urriak edukitzea euskararen aldeko sustapen-planak egiterakoan, eta horrek premiarik handiena duten eremuak zein diren jakitea eskatzen du lehentasunak ezartzeko.

Ondorioz, kaleko neurketen emaitzak beharrezkoak dira lehentasun horiek definitzeko edota datu xeheagoak eskuratze aldera. Izan ere, hainbat erabilera-datu eskura daitezke neurketaren bidez, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen, besteak beste. Era berean, neurketa horiek maiztasunez eginez gero, bilakaera ezagutu ahal izango da, eta, modu horretan, herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzeko aukera izango da.



2. Metodologia

2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia


Hondarribian egindako kale-neurketaren metodologia *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren Neurketan* garaturikoan oinarritua dago. 2.2. atalean azalduko diren fitxa teknikoko moldaketak soilik egin behar izan dira metodologia herriko berezitasunetara egokitzeko.

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale-neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik sei alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta 2016an. Azken honetako datu-bilketa egin den arren, emaitzak ez dira oraindik kaleratu, eta, beraz, ezingo ditugu aurrekoekin alderatu, oraingoz. Nolanahi ere, azken neurketetan bezala, bost urtean behin egindako neurketak, besteak beste, erroldako datuekin batera aztertzeke aukera emango dute. Dagoeneko, beraz, hogeita bost urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dagoela esan daiteke, gaur egun, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu direla datu horiek.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Izan ere, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela litzateke datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.

Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbidea eta neurraldiak, hain zuzen ere. Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusizat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharrezko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak



(potenzialki behintzat) neurtzea izanik. Nolabait ere, hautatutako egun eta orduetan herritar guztien hizkuntza-jarduera estatistikoki neurtzeko aukera bildu nahi da neurraldien eta ibilbideen diseinuarekin.

Elkarrizketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, bakarrizketa gisa jasotzen ditugu elkarrizketa-mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketen kasua, non hitzun bakarraren informazioa jasoz biltzen den elkarrizketa-datua. Bestalde, normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten da, eta beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen da kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen da, gehien erabiltzen duena alegia.

Fitxak

Neurketetan erabilera-datuak biltzeko fitxa bakarra erabiltzen da. Material horren bidez, hitzunen ezaugarriak jasotzen dira, aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat ateratzea ahalbidetuz. Hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aldagai hauek euskararen erabilera duten eragina neurtzeko aukera eskaintzen digu fitxak: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Neurraldi guztietan erabiltzen da fitxa bera; ikus ondoren fitxa horren irudiak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

SOZIOLOGUJISTIKA KLUSTERRA
T: 943 592 556
kaleneurketak@soziolinguistika.eus

HERRIA: _____
IBILBIDEA: _____
EGUNA: _____ ORDUA: _____
NEURTZAILEAK: _____

DHARRAK: _____

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTZESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
02	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
03	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
04	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
05	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
06	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
07	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
08	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
09	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa Gizonezkoa

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTZESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
21	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
22	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
23	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
24	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
25	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
26	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
27	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
28	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
29	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
30	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
31	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
32	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
33	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
34	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
35	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
36	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
37	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
38	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
39	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
40	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
41	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
42	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa Gizonezkoa



“Hondarribiarren” erabilera baino gehiago, Hondarribiko kaleetakoa

Azaltzen ari garen metodologia honek badu muga bat: ezin da ziurtatu kalean hizketan ari diren hiztun guztiak herrikoak direnik. Horregatik, ez da egokia neurtutakoa herriko biztanleen hizkuntza-erabilera dela esatea, izan ere, neurtutakoa herriko kaleetan jaso den erabilera da. Dena den, kasu batzuetan herrikoen erabilera hurbiltzeko helburuarekin, nabarmen kanpotarrak (turistak) direnen elkarrizketak modu berezitan jaso ditugu.

Erabilera-datuen neurketek bere zailtasuna ere badutela gogoan izan behar da, hizkuntza-erabilera aldakorra den heinean. Beraz, kontuan izan behar da datu adierazgarriak jasotzen badira ere, euskararen kale-erabilera hori neurri txiki batean aldagarria dela. Horren arrazoia ulergarria da: kalean noiz norekin topo egingo dugun aurreikusi ezin daitekeenez, euren jarduera neurtzen diren hiztunak ez dira beti berdinak eta horrek herriko euskararen kale-erabileraren datua aldarazi dezake. Muga hori gainditzeko da bereziki interesgarria, besteak beste, maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Hala eta guztiz ere, metodologia honek emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzea bermatzen du.

Adierazgarritasuna

Datuen adierazgarritasuna bermatzeko garrantzitsua da laginaren tamainari begiratzea, behatutako elkarrizketa-kopuruari alegia. Are gehiago, aurrez aipaturiko hiru aldagaiek (sexua, adina eta haurren presentzia) euskararen kale-erabileran duten eragina aztertzeko, gutxieneko elkarrizketa-kopuru bat bete behar da adierazgarritasun hori lortzeko. Egia da, sarritan, gazteen adin-taldean, 15-24 urte bitartekoan artean alegia, kalean behar baino hiztun gutxiago behatzen ditugula; izan ere, adin-talde honen joera erdigunetik haragoko eremuetan biltzea da eta zailtasunak ditugu gure laginean hiztun profil hori txertatzen. Arrazoi horregatik, hainbatetan populazioaren parte horretako datuak tentuz hartu behar izaten dira.

Zentzu horretan, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan (adin-taldeak sexuaren arabera bereizterakoan, adibidez), lagina txikiagoa bihurtzen da, eta datuek adierazgarritasuna galtzen dute, beharrezkoa den gutxieneko elkarrizketa-kopurua ez bada jaso. Hau da, aldagai guztiak aztertzeko lagin handia behar izaten da. Horrela, beste adibide bati erreferentzia eginez, gerta daiteke behatutako hiztunen adinaren arabera banaketa egiteko behar besteko lagina biltzea, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez.

Oharrak

Atal honekin amaituz, hona hemen datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabileraren** lekua lortzeko (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraiak, edonolako lokalak, ...), neurketa honetarik kanpo geratuko dira.

Neurtzaileak

Neurketa **bikote** gingo da. Pertsona bakar batek ere egin ezake, baina ego-kiagoa da neurtzaileak binaka aritzea. Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendea entzun eta bestearekin zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatu da, eta oso inportantea da saiatzea inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; isilduz, hizkuntzaz aldatuz, haserretuz,...

Neurketa, ez inkestak

Kalean goazela jendea ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzen. **Ez galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendea ez ez esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalki eta modurik objektiboan. Kalean doazenek ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Datuak nola jaso

Datuak orri berezitan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

1. **Hizkuntza:** "Euskara", "gaztelera", "frantsesa" eta "besteak" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "besteak" zutabean adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
2. **Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urteko gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
3. **Generoa:** Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
4. Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzuntz aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarrizketa**):
 1. Euskaraz laukian "X" markatu.
 2. Haurren zutabearen emakumezkoen laukian "1" adierazi eta gizonezkoen laukian beste "1" adierazi.
 3. "Haurrak hitz egiten" zutabearen "bai" laukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelera hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea berarekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarrizketa**):
 1. Gaztelera laukian "X" markatu.
 2. Haurren zutabearen emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabearen gizonezkoen laukian "1"; eta helduen zutabearen emakumezkoen laukian "1" eta gizonezkoen laukian beste "1" markatu.
 3. Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" laukian "X" seinatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztelera ari dira (**03 elkarrizketa**):
 1. Gaztelera laukian "X" markatu.
 2. Gazteen zutabearen emakumezkoen laukian "2" eta gizonezkoen laukian "3" adierazi.
 3. Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" laukian "X" markatu.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

HERRIA: _____
 IBILBIDEA: _____
 EGUNA: **Urriak 08** ORDUA: **18:00-20:00**
 NEURTZAILEAK: _____

SOZIOLINGUISTIKAR KLUSTERRA
 T. 943 592 556
 kaleneurketak@soziolinguistika.eus

EUSKARA	GAZTEKERA	FRANTSESA	BESTEAK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
								BAI	EZ
01	X			/	/			X	
02		X		/		/	/		X
03	X				2	3			X
04	X						2		X
05	X						2		X
06			X			/	/		X
07		X		2		/		X	
08	X				/		/		X
09	X						/	/	
10	X					2			X
11	X				4				X
12	X			/		/		X	
13	X						3		X
14	X			2			/		X
15	X					2	/		X
16	X			/	/				X
17	X				2	/			X
18	X			/		/	/		X
19	X				3	/	/		X
20	X			/	/				X

■ Emakumezkoa
 ■ Gizonezkoa



2.2 “Hondarribia, 2016” neurketaren fitxa tekniko

Prozedurak

Aurreko puntuan azaldutako metodologiako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Hondarribiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.

Ibilbideak


Arestian aurreratu moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, 2016ko *Hondarribiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko ibilbideak sei zonatan antolatu ditugu. Jarraian bildu ditugu zehatz-mehatz ibilbide bakoitzean neurtutako kaleak:

1. **Amute Kosta:** Amutalde, Amute, Erribehera-Behera, Gabarrari, Komentutxiki, Kosta, Minasoroeta, Santa Engrazia. (Gune interesgarriak: Parkea, plaza, Amuteko kirol gunea.)


>Ibilbidea:
HONDARRIBIA
(Amute Kosta)

Kale Neurketa
>SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA



2. **Portua:** Almirante Alonso, Arrantzale Auzoa, Axular, Belezarren Markes, Bernat Etxepare, Bidasoa ibilbidea, Butron Pasalekua, Domingo Egia, Irailak Zazpi, Itsasargi, Madalen, Matxin Arzu, Ontziola, San Pedro, Santiago, Zuloaga. (Gure interesgarriak: San Pedro, Zuloaga, dendak, Anbulatorioa, tabernak, Auditoriuma, Portuko eliza.)

>Ibilbidea:
HONDARRIBIA
(Portua)




Hale Neurketa
>SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA


3. **Akartegi:** Aintziondo, Akartegi, Aspune, Atsedon, Baserritar, Bera, Domingotxoenea, Donostia, Eguzkilore, Errazkinenea, Errekabea, Erreterria, Foru, Gabriel Aresti, Gudalupeko ama, Higer Bidea, Itsasondo Urbanizazioa, Jazikibel etorbidea, Jose Olaizola, Juan Inazio Iztueta, Kattalin Erauso, Labreder, Lezo Plaza, Loraitz-Bi, Loreartean, Mantzin Enea, Marisantzenea, masti, Nestor Basterretxea, Olabide, Oskarbi, Pasaia, PPierre Lhande, Ramon Iribarren, Soroeta, Soroetaberri, Soroetagain, Torreko aldapa, Tarratenea. (Gune interesgarriak: Hondartza Kiroldegia, Parkea, Kirol kaia, Kirol kaiko tabernak, Soko merkataritza gunea, Dia supermerkatua.)

>Ibilbidea:
HONDARRIBIA
(Akartegi)

Kate Neurketa
>SOZIOLOGIAKUTERRA KLUSTERRA




4. Alde zaharra: Apezpiku, Arma Plaza, Bordari, Bretxa, Denda, Eguzki, Etxenagusia, Fraxkuneko Murrua, Gipuzkoa, Harategi, Iparkalea, Javier Ugarte, Jeneral Ieiba, Juan Laborda, Kale nagusia, murrua, Olerkarien Plaza, Pampinpt, Remigio Mendiburu, San Nikolas, Santiago Konpostela, Satarka, Ubilla, Uria Harresia. (Gune interesgarriak: Arma Plaza, Kultur Etxea, Kale Nagusia, tabernak, udaletxea.)



5. Puntalea: Bidasoa ibilbidea, Bitoriano Juaristi, Damarri, Gaskoinen, Harresilanda, Hendaia, Irun, Javier Ugarte, Iapurdi, Lonja, markos Deuna enparatza, Nafarroa-Behera, Puntala, Sabina Arana, San Juan de dios, Zuberoa. Gune interesgarriak: Arraun elkartea, parkea, tabernak, Eroski supermerkatua, Damarri.

>Ibilbidea:
HONDARRIBIA
(Puntalea)


Kale Neurketa
->SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRA



6. Zimizarga: Biteri, Errebellin, Jaizkibel, Kattalin Erauso, Muliате, Saindua, Tximista, Zezenplaza, Zimizarga auzoa. (Gune interesgarriak: Jostaldi pilotalekua, parkea, Muliате plaza, Txiplao industria gunea.)

>Ibilbidea:
HONDARRIBIA (Zimizarga)

Hale Neurketa
»SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA



Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2016ko irailaren 23tik urriaren 23ra bitartean egin dugu, eta Hondarribiko kasuan ondoko neurraldion arabera osatu da egutegia:

AMUTE KOSTA	PUNTALEA	Irailak 23, ostirala	10:00 – 12:00 / 18:00 – 20:00
		Irailak 24, larunbata	11:00 - 13:00 / 19:00 - 21:00
		Irailak 25, igandea	12:00 - 14:00
		Irailak 27, asteartea	10:00 – 12:00 / 18:00 – 20:00
PORTUA	ZIMIZARGA	Irailak 30, ostirala	10:00 – 12:00 / 18:00 – 20:00
		Urriak 1, larunbata	11:00 - 13:00 / 19:00 - 21:00
		Urriak 2, igandea	12:00 - 14:00
		Urriak 4, asteartea	10:00 – 12:00 / 18:00 – 20:00
AKARTEGI		Urriak 11, asteartea	10:00 – 12:00 / 18:00 – 20:00
		Urriak 14, ostirala	10:00 – 12:00 / 18:00 – 20:00
		Urriak 15, larunbata	11:00-13:00 / 19:00 - 21:00
		Urriak 16, igandea	12:00 - 14:00
ALDE ZAHARRA		Urriak 18, asteartea	10:00 – 12:00 / 18:00 – 20:00
		Urriak 21, ostirala	10:00 – 12:00 / 18:00 – 20:00
		Urriak 22, larunbata	11:00 - 13:00 / 19:00 - 21:00
		Urriak 23, igandea	12:00 - 14:00
NEURKETAN IGAROTAKO ORDU-KOPURUA: 56			



Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

Unibertsoa: Hondarribiko kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

Lagina: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun **3.641 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **10.347 herritarrek** osatu dute lagina¹.

Akats-tartearen kalkulua (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): **Akats-tartea** bertakoen datuekin kalkulatu dugu. **±%1,62koa** elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan.

2.3 Laginaren osaera

Behatutako 3.641 elkarrizketa eta horietan solaskide izan diren 10.347 herritarren ezaugarriak jakitea beharrezkoa da unibertsoaren ordezkagarritasuna aztertzeko garaian. Hau da, gure azterketarako laginaren osaerari erreparatzea garrantzitsua da hondarribiarren ezaugarriak modu berean bildu ote diren jakiteko eta zer nolako akats-tartea dugun balioztatzeko. Beraz, laginaren osaerari erreparatuz, azterketan egin dezakegun akats-tartearen balorazio bat egingo dugu.


Dena den, laginaren osaera eta hondarribiarren adin-tarteen proportzionaltasunaren alderaketa neurri batean da kontuan hartzekoa, izan ere, ez baita berez gure helburua herritarren erabileraren argazkia ateratzea, baizik eta Hondarribiko kaleetan entzuten den erabilera neurtzea. Kaleetan entzuten diren elkarrizketak ez dira soilik herritarren artekoak izaten, eta elkarrizketetan parte hartzen duten pertsonak ez dute zertan herritarrek dituzten ezaugarri berberak izan beharrik.

¹ EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera 2011n Hondarribian 15.896 herritar bizi ziren.

Adin-tarte osaera

Batetik, lagina osatu duten hiztunen adinean jarriko dugu arreta. Lehenengo grafikoan ikus daitekeenez, lagineko hiztun gehienak 25-64 urte bitartekoak (%52,0) dira. Ondoren, 2-14 urte bitartekoak (%23,6) eta 64 urtetik gorakoak (%17,7) behatu ditugu gehien. Azkenik, 15-24 urte bitartekoak dira (%6,5) laginean pisu gutxien duten hiztunak. Beraz, jasotako elkarrizketa gehienak haur, gurasoen eta adinekoen artekoak izan direla esan daiteke, hiru adin-taldeko hiztunak batuz ia lagin osoa osatzen baitute (%93,5 hain zuzen).

1. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ADIN-TARTE OSAERA, UNIBERTSOAREKIN ALDERATUZ HONDARRIBIA, 2011-2016



	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2-14 urte	2.447	23,6	2.065	13,2
15-24 urte	674	6,5	1.426	9,1
25-64 urte	5.387	52,1	9.414	60,3
>64 urte	1.839	17,8	2.991	19,1
GUZTIAK	10.347	100	15.896	102


Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Hondarribiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016. Unibertsoa: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.

Laginaren eta unibertsoaren arteko alderaketa eginez, desoreka hantzematen da haurren laginaren eta unibertsoaren artean, nagusiki, udalerrri askotan gertatu ohi den bezala, bestalde. Laginean %23,6a osatzen zuten haurrek eta errealitatean berriz %12,9koa da populazioaren hartzen duten proportzioa, hamar puntukoa aldea, hain zuzen. Helduen kasuan ere, bada kontuan hartzeko moduko desoreka bata eta bestearen artean: zazpi puntukoa aldea kasu honetan (%52 lagina, %59,2 unibertsoa), kontrako norabidean doa: errealitatean hartzen duten proportziotik beherago jaso dira lagina osatzen duten helduen elkarriketak. Eta antzekoa gertatzen da gazteen kasuan ere: errealitatean (unibertsoan) hartzen duten tamaina baino lagin txikiagoa jaso dugu egindako neurketan (lagina %6,5, unibertsoa %8,9). Datu horiek kontuan hartuko dira ikerketaren emaitzak aztertzeke orduan.

Sexu osaera


Komenigarria da, era berean, sexuaren arabera lagina nola osatzen den kontuan izatea, horrek ere emaitzen interpretazioan eragina izan baitezake.

2. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ETA UNIBERTSOAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. HONDARRIBIA, 2016 (%)



	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Emakumezkoak	5.516	53,3	7.978	51,1
Gizonezkoak	4.831	46,6	7.918	50,7
GUZTIAK	10.347	100	15.596	100

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hondarribiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016; Unibertsoarako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011




Bigarren grafikoan ikus daitekeenez, Hondarribiko biztanleriaren %50,1 emakumezkoak eta %49,8 gizonezkoak dira EUSTAT-en 2011ko erroldaren arabera. Laginean errealitatean bezala emakumezkoek pisu gehiago hartu dute, unibertsoetik laginera gizonezkoen eta emakumezkoen kopuruetan hiru puntuko gorabeherak daude (gizonezkoak hiru puntu gutxiagoz jaso dira, %46,6ko pisua hartuz; eta emakumezkoak, berriz, hiru puntu gehiagoz, %53,3ko pisua hartuz), azterketan kontuan hartu beharrekoak dira. Biztanleriaren datu orokorren artean, bi sexuen arteko aldea oso txikia da eta gure behaketan emakumeak gehiago direla kontuan hartzea komeni da, ondorioak ateratzeko.

3. Erabilera Hondarribian, 2016. urtean: emaitza orokorra

3.1 Hondarribiko elkarrizketetatik ia laurdena euskaraz

Hondarribiko kaleetan entzundako elkarrizketetarik ia laurdena euskaraz izan dira, %24,6 zehatz esanda. Gainerakoak gaztelaniaz (%73,2) zein beste hizkuntza batzuetan izan dira (%2,2), 2016ko irailean eta urrian egindako neurketaren arabera.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hondarribiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Horixe da 2016eko irailean Hondarribiko herrian egindako neurketaren emaitza nagusia. Neurketa nola egin dugun (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu dugu txosten honetako 2. atalean. Gogora dezagun, besterik gabe, **3.641 elkarrizketa** behatu ditugula Hondarribian, eta **10.347 lagun** izan direla guztira elkarrizketa horietako solaskide. Ikerketa sozialean erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori **15.896 hiztun** dituen herri



batentzat². Termino estatistikoetan, esan dezakegu euskarazko elkarriketen %24,6ko datu horri $\pm\%1,62$ ko akats-tartea dagokiola, %95,0ko konfiantza mailan, unibertso osoaz hitz egiterakoan³. Oinarri sendoa dugu, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

3.2 Testu-inguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila

Ehuneko 24,6koa da, hortaz, euskararen erabilera⁴ Hondarribian. Hori asko den edo gutxi den hausnartzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua batetik (euskaldunen kopurua, alegia) eta euskaldun-kopuru horretatik “espero daitekeen erabilera” bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.

Hondarribiarren hizkuntza-gaitasuna

EUSTATEk 2011. urtean egindako *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren* arabera, biztanleriaren %60 euskalduna zen Hondarribian. Beste zati batek (%22,9), euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nolabaiteko ezagutza bat, ulermen mailan, behintzat, eta gainerako %17,1a erdalduna zen⁵, euskara ulertu ez eta hitz egiten ere batere ez zekitenak. Horiek dira Hondarribiko herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak.

² Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2011.


³ Hizkuntzen erabileren kale-neurketetarako Soziolinguistika Klusterrak berriaz landutako eredu matematikoaren emaitza (ikus <http://www.soziolinguistika.eus/lagina/eskaera/kale-erabilera>).

⁴ Berez, zentzu hertsian, “kale-erabileraz” hitz egin beharko genuke. Azalpena arintzearen, ordea, “erabilera” terminoa erabiliiko dugu. Izan kontuan ohar hau kontuan txosten osorako.

⁵ Kategoriatu horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galderei (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez

4. GRAFIKOA eta TAULA. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. ERRENTERIA, 2016 (%)



	Kop.	(%)
Euskaldunak	9.534	60,0
la euskaldunak	3.641	22,9
Erdaldunak	2.721	17,1
GUZTIAK	15.896	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011

Espero daitekeen euskararen erabilera

Udalerri bateko hizkuntzen erabilerearen neurketa abiatzerakoan helburua izan ohi da ezagutzea, zein neurritan erabilera-maila hori euskal hiztun proportzio bera duten udalerrien erabilera-mailarekin bat datorren. Hau da, zein proportziotan euskaldunek euskaraz hitz egiten duten testuinguru elebidun edo eleaniztun batean. Hizkuntza-erabilerearen konplexutasuna ulertzeko ekarpen berezia egin zuen J.L. Alvarez Enparantza *Txillardegik* 2001 urtean, bere *eredu matematikoa* garatu zuenean⁶. Eredu horren bitartez, gune elebidun jakin batean *espero daitekeen euskararen erabilera* kontzeptua definitu eta kalkulatzeko modua aurkeztu zuen, honako ezaugarriekin:

- Harreman-testuinguru hipotetiko batean, non eta gizakiek euren arteko hizketaldiak ausaz egingo lituzketen (egoera isotropikoa),

⁶ Gaian sakontzeko ikus Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegik, 2001, Hacia una Socio-Lingüística Matemática. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen; Isasi, X eta Iriarte, A, 1998, "Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 28, 51-80 orr.

- gune jakin bateko euskaldunen proportzioa kontuan hartuta, eta
- euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz egingo dutenaren hipotesia emanda (euskararekiko leialtasun erabatekoa),
- *espero daitekeen euskararen erabilera (erabilera isotropikoa)* kalkula daiteke,
- honako formularen bidez:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B = euskararen erabilera-maila
 m_B = euskararekiko leialtasuna
 e_x = elebidunen proportzioa
 w_2 = bikoteen pisua
 w_3 = hirukoteen pisua
 w_4 = laukoteen pisua

Esan bezala, *espero daitekeen euskararen erabilera (erabilera isotropikoa)* kontzeptua harreman-testuinguru hipotetiko bati dagokio, eta ez da, beraz, praktika errealari loturiko kalkuluaren emaitza. Nolanahi ere, zalantzarik gabe, *erabilera isotropikoaren* balioak lagun dezake hiztun euskaldun eta ez-euskaldunetz osatutako testuinguruetan, euskal hiztunen hizkuntza-hautua neurri batean ulertzen.

Gure kasuan: Hondarribian neurtutako erabilera (%24,6 euskaraz) handia edo txikia den balioztatzeko, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten tarteak kontuan hartuko da (esan bezala, %60 ziren euskaldunak 2011n). Aplika dezagun formula hori Hondarribiko errealitatera.

$$P_B = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,60^2 + 0,22 \cdot 0,60^3 + 0,18 \cdot 0,60^4) = 0,287 = \%28,7$$


Kalkuluak eginda, hortaz, Hondarribian, %28,7koa da baldintza horietan *erabilera isotropikoa*. Beraz, Hondarribiko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, %28,7koa da *espero daitekeen euskararen erabilera*.

3.3 Euskararen erabilera Hondarribian, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera isotropikoa aintzat hartuta

Jar ditzagun taula batean eta irudikatu ditzagun grafiko batean orain arte aipatu ditugun hiru datu nagusi horiek:

Bosgarren grafikoan eta taulan ikus daitekeen bezala, euskararen kaleko erabilera ezagutzarena baino nabarmen txikiagoa da. Zehazki, elebidunen kopurua (%60) euskararen kaleko erabilera (%24,6) baino nabarmen altuagoa da. Eta, aldi beran ikus daiteke *erabilera isotropikotik* (%28,7) (*espero daitekeen erabileratik*) lau puntu azpitik dagoela kaleko erabilera erreala.

5. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA,ERABILERA ISOTROPIKOA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA. HONDAERRIBIA, 2016 (%)




	(%)
Hizkuntza-gaitasuna 2011	60,0
Kaleko erabilera erreala 2016	24,6
Espero daitekeen erabilera 2011	28,7

Oinarria (kasu-kopurua): Hitzunak 15.896, behatutako elkarrizketak 3.641, behatutako hiztun-kopurua 10.347

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Hondarribiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016; EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011.

Diferentzia horiek azaltzeko, kontuan izan behar da ia kasu guztietan euskaldunak gaztelaniadunak ere badirela (euskaldun elebakarrak haurren artean soilik topa daitezke), eta hizkuntza bat zein bestea erabil dezaketela. Pentsa daiteke, euskaraz hitz egiteko gai ez den mintzakidearekin gaztelaniaz hitz egingo dutela; mintzakide elebidunarekin, berriz, euskaraz edo gaztelaniaz. Beraz, ezinezkoa da euskararen erabilera ezagutzaren mailakoa izatea. Hori horrela izan dadin (erabilera eta ezagutza bat etor daitezen), bi baldintza bete beharko lirarteke: euskaldunek inolako harremanik ez izatea euskaldun ez direnekin, eta euskaldunen artean euskara besterik ez erabiltzea.



Aintzat hartzeko beste erreferentzia baldintza isotropikoetan euskaldunek leial jokatzuz gero “espero daitekeen erabilera” dugu. Kopuru hori %28,7koa da Hondarribian, eta azpimarra daiteke euskararen kaleko erabilera erreala (%24,6koa) lau puntu azpitik dagoela.

Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu honako hau erreferentzia teorikoa dela, eta jakin badakigula harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, familia-kide, lagun, adinkide eta gainerako talde sozialen kide izateak ugaritzen dituztela harremanak, eta, oro har, gutxiago izaten direla kidesun horiek gabeko hizketaldiak.

Horregatik, bi datu horiek arreta bereziaz aztertzeko modukoak direla esan daiteke. Udalerri euskaldunenetan ez da ohikoa izaten euskararen kaleko erabilera balio isotropikoaren azpitik izatea. Neurketak emandako datuen oinarrian zer arrazoi dauden ulertzeko Ikerketa sakonagoak egitea gomendagarria da, kontuan izanda, gainera, honakoa hau dela Hondarribian egiten den lehen neurketa berezia dela, eta ezin dugula, hortaz, alderaketa diakonikorik egin. Ikerketa horien esperoan, ordea, honako bi hipotesiak proposatzeko moduan egon gaitezke:

- Balio isotropikoa kalkulatzeko kontuan hartzen dugu alde batetik, udalerriko euskaldun-dentsitatea (populazio osoaren arabera elebidun-ehunekoa; Hondarribian %60) eta, bestetik, euskaldunen euskararekiko leialtasuna (euskaldunek euren artean beti euskaraz egingo dutelako egoera hipotetikoa)
- Baina ezin dugu ziurtatu (txosten honetako 2. atalean azaldu beala) neurtzen dena udalerriko biztanleriaren euskararen erabilera denik, baizik eta bertako kaleetan daudenena, hipotesi mailan honakoa planteatu daiteke:
 1. Kaleetan dagoen populazioa ez da udalerriko populazioaren euskaldun-proporzioari erantzuten diona: izan kanpotarra (turistak edo bertan bizi arren, udalerrian erroldatu gabeak) edo bertan erroldatuta izan arren, esanguratsuki proportzio desberdinetan daude kalean.
 2. Euskaldunek euren artean hitz egiterakoan, ausaz aurreikusi daitekeena baino maiztasun txikiagoan hitz egiten dute euskaraz elkarrekin, hau da balio isotropikoa kalkulatzeko erabiltzen den leialtasunaren azpitik nabarmenki daudela.


Arestian aipatu moduan, ikerketa sakonagoen emaitzen esperoan, esandako bi hipotesi horiek planteatu daitezkeen, nahiz eta, ziur asko, bien arteko konbinaketa baten aurrean egon gintezkeela pentsa daitekeen.

4. Ezagutzaren bilakaera

4.1 Ezagutzaren bilakaera

Euskararen erabilera ulertzeko Hondarribian, interesgarria da aztertzea herritarren hizkuntza-gaitasunak izan duen bilakaera. Ondorengo grafiko eta taulatan ikus daitezke herritarren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, 1986. urtetik 2011. urtera bitartekoak.

6. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. HONDARRIBIA, 1986-2011 (%)



	1986 (kop.)	1991 (kop.)	1996 (kop.)	2001 (kop.)	2006 (kop.)	2011 (kop.)
Euskaldunak	7.376	7.725	8.560	8.858	9.352	9.534
la euskaldunak	2.069	2.789	2.670	2.707	3.113	3.641
Erdaldunak	3.281	2.766	2.930	3.067	2.976	2.721
GUZTIAK	12.726	13.280	14.160	14.632	15.441	15.896
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	58,0	58,2	60,5	60,5	60,6	60,0
la euskaldunak	16,3	21,0	18,9	18,5	20,2	22,9
Erdaldunak	25,7	21,8	20,6	21,0	19,2	17,1
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006, 2011.

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera aztertzeko, EUSTAT-ek bost urtean behin egiten duen zentsuan hizkuntzari buruzko informazioa erabiltzen dugu. Hondarribian hizkuntza-gaitasuna, euskaldunei dagokionez bi puntu igo da 25 urteotan (1986ko %58tik 2011ko %60ra); apenas mugitu den azken hogeitau urteetan %60 horretatik. Ia euskaldunak direnen portzentaiak zertxobait gora doa; esate baterako, bi puntu baino gehiago igo da 2006ko %20,2tik 2011ko %22,9ra. Erdaldunen kasuan berriz, behera egin du ia zortzi puntutan 1986ko %25,7tik 2011ko %17,7ra.

4.2 Adinaren arabera euskararen ezagutzaren bilakaera


Nolanahi ere, euskaldunen proportzio osoaren bilakaeran aldaketa esanguratsurik gertatu ez den arren, interesgarria da ikustea, adinaren arabera bilakaeran antzeman direla kontuan hartzeko moduko desberdintasunak, ondorengo grafiko eta taulatan ikus daitekeen bezala.

7.GRAFIKOA eta TAULA: ADINAREN ARABERAKO EUSKARAREN EZAGUTZAREN BILAKAERA. HONDARRIBIA (1991-2011). Euskaldunak (%)



	1991	2001	2011
Haurrak	68,6	73,3	82,1
Gazteak	60,7	78,3	85,6
Helduak	52,0	53,7	53,2
Adinekoak	68,3	62,5	53,7

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 1991, 2001, 2011.



Hamar urteko epealdiari (2001-2011) erreparatuz gero, nabarmentzekoa da haurren eta gazteen artean gertatu den euskalduntze-prozesu garrantzizkoa. Epe horretan, haurren arteko euskalduntzea kontuan hartzeko modukoa da, 15 puntu igo baita euskararen ezaguta (1991ko %68,6tik 2011ko %82,1era) eta, batez ere, gazteen artean (25 puntuko igoera 1991ko %60,7tik 2011ko %85,6ra). Era berean, aipagarria da kontrako kasuan, adinekoen artean gertatu den ezagutzaren galera: 1991an %68,3 zen euskaldunen ehunekoa Hondarribian, eta %53,7koa 2011. urtean.


Bilakaera horrek, alde batetik, euskarazko eskolen eragina erakuts dezake, pentsa baitaiteke, bertan gertatu dela euskarazko hiztun berrien igoera garrantzizkoa. Bestalde, beste hainbat euskal udalerritan gertatu bezala, euskaldunagoa zen adinekoen artean gaitasuna-proporzioa galdu da, alde batetik adineko euskaldunen desagertzearen eraginez, eta talde horretara heldu erdaldunagoen integratu delako (talde horretara proportzionalki erdaldunagoa den populazioaren parte bat igaro delako).

5. Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko beste herriekin alderaketa

5.1 Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko herrien kale-erabileraren datuekiko alderaketa

Ondorengo grafikoan, Euskal Herrian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan eta Donostialdean jasotako hizkuntzen kale-erabileraren datuak alderatuko ditugu eta Hondarribiko 2016koekin konparatuko (gogoratzea komeni da, hemen, eskura ditugun EHko EAEko, Gipuzkoako eta Donostialdeko azken datuak 2011koak direla, eta, beraz, konparaketa hauek tentuz hartu behar direla, halaberrez).

8. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKAL HERRIKO, EAEko, GIPUZKOAKO, DONOSTIALDEKO ETA HONDARRIBIKO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. HONDARRIBIA, 2016. EUSKARAZ (%)




Euskararen kale-erabilera 2011/2016	
Euskal Herria 2011	13,3
EAE 2011	16,1
Gipuzkoa 2011	32,7
Bidasoa Behera 2011	12,8
Hondarribia 2016	24,6

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Hondarribiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016; 2016 eta Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa, 2011.

Zortzigarren grafikoak eta taulak erakusten dutenez, Hondarribiko euskararen kale-erabilera (%24,6) Euskal Herrikoaren gainera dago (%13,3) baita EAEko erabileratik ere (%16,1). Bidasoa Beherako erabilerarekin alderatzen badugu, ia bikoiztu egiten duela ikus daiteke (%12,8). Datu horrek, garbi adierazten du euskualde horren baitan aurkitzen direla nabarmenki erabilera txikiagoa duten udalerriak. Azkeni, haintzat hartzekoa da Gipuzkoarekin alderatuz gero, Hondarribiko kale-erabilera zortzi puntu azpitik dagoela (%24,6).


5.2 Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera EAEko, Gipuzkoako, Bidasoa Beherako eta Hondarribiko datuen alderaketa

9. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA. EAEKO, GIPUZKOAKO, BIDASOA BEHEREKO ETA HONDARRIBIKO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. 2011 -2016 (%)



	Hizkuntza-gaitasuna 2011	Erabilera erreala 2011/2016	Espero daitekeen erabilera 2011
EAE	37,2	16,1	9,8
Gipuzkoa	53,2	32,7	21,8
Bidasoa Behera	41,1	12,8	12,6
Hondarribia	60	24,6	28,7

Iturria: EAE, Gipuzkoako, Bidasoa Beherako eta Hondarribiko gaitasunetarako EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. EAEko, Gipuzkoako eta Bidasoa Beherako kale-erabilerarako Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen-erabilera neurketak, 2011; Hondarribiko kale-erabileraren daturako, Kale-neurketa 2016. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.




Bederatzigarren grafikoak eta taulak egoera ulertzeko lagungarriak izan daitezke. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Hondarribia da hautatutako eremu geografikoetatik ehunekorik altuena duena (%60,2) eta Gipuzkoa ondoren (%53,2); Bidasoa Behera (%41,1) eta EAEa dira hizkuntza-gaitasunaren ehuneko txikienak dituzten eremu geografikoak.

Erabilera isotropikoa edo *espero daitekeen erabilerari* dagokionean, aipagarria da Hondarribian ez beste eremu geografikoetan, balio hori erabilera erreala baino altuagoa dela (eskualdean oso tarte txikiarekin bada ere). Aldiz, Hondarribian kaleko erabilera erreala balio isotropikoaren azpitik dago. Balio horien azalpenetarako ikus daiteke 3.3 atalean hipotesi moduan planteatutako arrazonamendua.

5.3 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa

Datu horiek apur bat gehiago testuinguratzeko, Bidasoa Behera eskualdeko herriekin alderatzea izango litzateke egokiena baina behar adina datu eskura ez dugunez, Hondarribiarekin hainbat antzekotasun dituzten Lezo eta Hernanirekin alderatu dugu. Lezok eta Hondarribiak hizkuntza-gaitasun antzekoa dute (Lezok %56,8koa du eta Hondarribiak %60koa), eta Hernaniren kasuan, hizkuntza gaitasuna antzekoa izateaz gain (hiritarren %57,3en da euskalduna) udalerriaen populazioa ere konparagarria da (Hernanik 18.876 biztanle zituen 2011an EUSTAT-en arabera eta Hondarribiak berriz 15.596).

10.GRAFIKOA eta TAULA: EZAGUTZA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA LEZO, HERNANI ETA HONDARRIBIA, 2016. (%)



	Hizkuntza-gaitasuna 2011	Erabilera erreala 2016	Espero daitekeen erabilera 2011
Lezo	56,8	38,5	25,2
Hernani	57,3	29,7	25,8
Hondarribia	60	24,6	28,7

Iturriak: Gaitasunerako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Kale-erabilerarako: 2016ko Lezoko, Hernaniko eta Hondarribiko hizkuntzen-erabileraren neurketa. Espero daitekeen erabilerarako: Soziolinguistika Klusterraren kalkuluak.


Hizkuntza-gaitasunari dagokionean, hiru udalerriek antzeko kopuruak dituztela aipatu dugu (Lezok %56,8, Hernanik %57,3, Hondarribiak %60). *Balio isotropikoa* edo *espero daitekeen erabileraren* balioari dagokionean, Hondarribikoa hiru puntu altuagoa du. Erabilera errealarari dagokionez, Lezokoa da kaleko erabilera handiena (%38,5) eta ondoren Hernanikoa (%29,7). Bi horietatik bost puntu beherago dago Hondarribiko kaleko erabilera (%24,63). Kasu horretan balio isotropikoaren behetik dagoena gainera.

6. Zonaldekako emaitzak

6.1 Zonaldeen araberako bilakaera


Herritarrek leku publikoetan zer hizkuntza erabiltzen duten neurtzea xede izanik, herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan egin dugu behaketa.

11. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. HONDARRIBIA, 2016 (EUSKARAZ, %)



	GUZTIAK	Akartegi	Alde Zaharra	Amute kosta	Portua	Puntalea	Zimizarga
Euskaraz	24,6	31,2	20,9	31,8	20,6	20,9	25,2
Gaztelaniaz	73,2	67,4	76,4	67,4	77,2	75,3	72,6
Beste hizkuntzetan	2,2	1,3	2,7	0,8	2,3	3,8	2,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	10.347	1.809	1.688	1.461	2.663	1.683	1.043

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2016ko Hondarribiko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa.



Ibilbideak zehazteko, udalerriko herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren identifikatu ohi da, eta behin zonalde horiek definitu ostean, zonalde bakoitzaren barruan zer ibilbideri jarraitu behar zaion erabaki, udaleko teknikariekin elkarlanean. Hondarribiko kasuan, sei eremutan banatu dugu udalerrria, fitxa teknikoaren atalean aipatu den moduan.


Hamargarren grafikoan eta taulan ikus daitekeen modura, Amute Kostako eta Akartegiko ibilbideetan neurtu da euskarazko elkarrizketa-ehuneko handiena (%31,8 eta %31,2, hurrenez hurren). Ondoren, bost puntu inguruko tartearekin Zimizargako ibilbidean (%25,2) eta gainerako lau ibilbidetan %20 inguruko euskararen erabilera neurtu da Puntalean eta Alde Zaharrean (%20,9), eta Portuan %20,6).

7. Hiztunen ezaugarrien araberako datuak

7.1 Sexuaren araberako emaitzak

Gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza-portaeren artean alderik ez dagoela esan daiteke (gizonezkoek %24,4; emakumezkoek %24,8).

12. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. HONDARRIBIA, 2016 (EUSKARAZ, %)




	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	24,6	24,4	24,8
Gaztelaniaz	73,2	73,8	72,5
Beste hizkuntzetan	2,2	1,8	2,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	10.347	5.516	4.831

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hondarribiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

7.2 Adinaren arabera emaitzak

Alde esanguratsuak antzeman dira hizkuntza-portaeran adinaren arabera aztertuz gero. Herri askotan haurrak (2-14 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak eta Hondarribian ere hala gertatu da: haurren erabilera da altuena udalerrian; %41,6tan darabilte euskara hurrek. Ondoren, nabarmentzeko tartearekin, helduen (%20,1) eta adinekoen (%20,0) erabilerak ikus daitezke. Azkenik, euskararik gutxiena erabiltzen duten hiritarrak gazteak dira %11,3 elkarriketa izan dira euskaraz adin horietako lagunen artean.

13.GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. HONDARRIBIA 2016 (EUSKARAZ, %)




	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	41,6	11,3	20,1	20,0
Gaztelaniaz	57,2	87,8	76,8	78,5
Beste hizkuntzetan	1,3	0,9	3,0	1,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	2.447	674	5.387	1.839

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hondarribiko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Belaunaldi berriak etorkizunaren aitzindari eta aurrerapen diren heinean, haurren erabilera aurretik izatea da desiragarriena hizkuntzaren berreskurapena lortze aldera. Nolanahi ere, gazteen artean izatea erabilera txikiena dutenak ez da ohikoena gaur egungo Euskal Herrian, eta arretaz begiratzeko datua izan daiteke.

Datuen interpretazioan laguntzeko, ondoren alderatuko dira adin-tartearen arabeko hizkuntza-gaitasuneko balioak. Beheko taula eta grafikootan ikus daitekeenez, adinari erreparatuta, badaude aldeak herritarren hizkuntza-gaitasunean.


14.GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. HONDARRIBIA, 2011.



	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)
Euskaldunak	9.534	1.695	1.220	5.012	1.607
Ia euskaldunak	3.641	240	101	2.677	623
Erdaldunak	2.721	130	105	1.725	761
GUZTIAK	15.896	2.065	1.426	9.414	2.991
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	60,0	82,1	85,6	53,2	53,7
Ia euskaldunak	22,9	11,6	7,1	28,4	20,8
Erdaldunak	17,1	6,3	7,4	18,3	25,4
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011.

EUSTATen datuen arabera, Hondarribian haurren eta gazteen artean hamarretik zortzik baino gehiagok daki euskaraz hitz egiten; haurren artean %82,1ek eta gazteen artean %85,6k. Aldiz, helduen eta adinekoen artean euskaraz hitz egiten dakitenak proportzionalki gutxiago dira, populazioaren erditik zertxobait gorago dagoelarik, zehazki %53,2 helduen kasuan eta %53,7 adinekoen artean. Ezagutzen ikus daitekeen desberdintasun horrek azal dezake neurri batean helduen eta adinekoen artean euskararen erabilera txikiagoa izatea, haurrenarekin alderatuz gero, baina, aldi berean, zaildu egiten du gazteen euskararen



erabilera txikiaren arrazoia ezagutzea. Izan ere, gazteen taldea da Hondarribian, euskaraz gehien dakien populazioaren partea, eta aldi berean, kalean gutxien erabiltzen duena.


Interesgarria izan daiteke hemen, txosten honetan 4.2 atalean emandako datuak berriro gogora ekartzea. Han esaten zen hamar urteko epealdian (2001-2011) 15 puntu igoera gertatu dela euskararen ezagutzan haurren artean (1991ko %68,6tik 2011ko %82,1era) eta, batez ere, gazteen artean, 25 puntu igoera epe berean (1991ko %60,7tik 2011ko %85,6ra). Ezagutzaren igoeraren ondotik, neurtutako euskararen kale-erabileraren datua hobeto ulertzeko, kasu honetan ere, azterketa sakonagoak egitea beharrezkoa dela esan daiteke, baina hipotesi moduan, euskalduntze-prozesu azkar hori egon daiteke, neurri batean, ezagutza eta erabileraren tarte nabarmenaren oinarrian.

8. Euskararen erabilera eta haurren presentzia

8.1 Haurren presentziaren araberako euskararen erabilera

Nola aldatzen da hizkuntzen erabilera solas-taldea era batekoa edo bestekoa izan? Zehazki, haurrak eta nagusiak (gazte, heldu zein adindu) elkarrekin nahasian aritu edo ez, horrek ba al du eraginik hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautuan?

15.GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. HONDARRIBIA, 2016 (EUSKARAZ, %)




	Haurren artean	Nagusien artean	Haurrak eta nagusiak nahasian
Euskaraz	26,1	13,5	46
Gaztelaniaz	72,5	83,8	52,6
Beste hizkuntzetan	1,5	2,7	1,5
GUZTIRA	100	100	100
Oinarria (behatutako solaskideak)	821	6.307	3.219

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hondarribiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016

Datuak ikuspegi horretatik aztertuta ikus daiteke joera nagusia zein den: hizkuntza-portaerak aldatu egiten dira solas-taldearen osaeraren arabera. Zehazki, haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean, erabilera %26,1ekoa da euskaraz; nagusiek, euren artean (haurrik gabe) ari direnean, dezente gutxiago erabiltzen dute euskara (%13,5). Aldiz, hurrez eta helduez osatutako taldeetan %46kotan euskaraz izan dira elkarrizketak.


Ikus dezagun ordea haur eta helduen arteko taldeetan zer gertatzen den, ea batzuen eta besteen artean hizkuntza-portaeretan alderik dagoen. Hau da, talde horietan, berdin jokatzeko al dute hurrek ala helduek hitz egiten dutenean? Ondorengo 21. grafiko eta taulatan ikus daitekeenez, nabarmentzeko moduko aldea badago batzuen eta besteen arteko hizkuntza-jokabideetan.

16.GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. HIZKETAN ARI DENAREN ARABERA. HONDARRIBIA, 2016 (EUSKARAZ, %)



	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Haurra hitz egiten	Nagusia hitz egiten
Euskaraz	26,1	13,5	46	48,3	42,9
Gaztelaniaz	72,5	83,8	52,6	55,3	50,5
Beste hizkuntzetan	1,5	2,7	1,5	1,9	1,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	821	6.307	3.219	1.379	1.840

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hondarribiko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.



Esan bezala, nagusiek (gazteek, helduek eta adinekoek) hurrekin taldeetan daudenean nabarmen gehiago entzuten da euskaraz hitz egiten; elkarrizketen %46a euskaraz baitira (haurrak bakarrik daudenean %26,1ean eta nagusiek haurrik gabeko taldeetan %13,5ean dira euskaraz elkarrizketak.

Eta haur eta adinekoez osatutako taldeetan, datuek erakusten dute hurrek maizago hitz egiten dutela euskaraz nagusiek baino (%48,3 eta %42,9tan hurrenez hurren). Hori da, hain zuzen Euskal Herriko joera orokorra.



9. Datu nagusien laburpena

Atal honetan, Hondarribiko hizkuntzen kale-erabileraren neurketan jasotako **emaitza nagusiak** laburbilduko ditugu.

- Hondarribiko kaleetan entzundako elkarrizketetaik **ia laurdena euskaraz** izan dira, %24,6 zehatz esanda. Gainerakoak gaztelaniaz (%73,2) zein beste hizkuntza batzuetan izan dira (%2,2).
- Gipuzkoako batez besteko euskararen ezagutzaren gaineratik egon arren (Gipuzkoa %53,2, Hondarribia %60), Hondarribian euskararen erabilera Gipuzkoakoaren azpitik dago: (Gipuzkoa %32,7, **Hondarribia %24,6**).
- **Amute Kostan** eta **Akartegin** erabiltzen da gehien euskara. Aldiz, Portuan, Puntalean eta Alde zaharreen gutxien entzuten da hitz egiten euskaraz.
- **Ez da alderik antzeman emakumezkoek** eta gizonezkoen hizkuntza-erabileraren artean. Emakumezkoek %24,4k eta %24,8 gizonezkoen kasuan.
- **Haurrak** (2-14 urte bitartekoak) dira euskara **gehien** erabiltzen dutenak (%41,6); euskara gutxien erabiltzen dutenak, berriz, gazteak (%11,3) helduen erabilera (%20,1) eta helduena (%20,0) berdina izan da.
- **Haurrak bakarrik** (nagusirik gabe) daudenean **%26,1ekoa** da **euskarazko** erabilera. **Nagusiek, euren artean** (haurrik gabe) ari direnean, **%13,5ean** darabilte euskara. **Hurrek eta helduek** osatutako taldeetan, berriz, **%46,0ra** igotzen da erabilera.
- Adin-taldeak nahasturik daudenean, **haurra hitz egiten** ari bada, erabilera **altuagoa** da (**%48,3**), nagusia hitz egiten ari denean baino (**%42,9**).

Andoainen, 2016ko urtarrila.